UDAL TITULARTASUNEKO ERAIKIN ETA INSTALAZIOETAKO ESTALKIEN ERABILERA HERNANIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA KOOPERATIBA SOZIETATEARI LAGATZEKO HERRI JABARIKO EMAKIDA HITZARMENA, INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK INSTALATU, MANTENDU ETA USTIATZEKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AUTOKONTSUMO KOLEKTIBO ETA KONPARTITUA BULTZATZEKO.

Identifikatu dira:

Alde batetik, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernaniko alkate-udalburua, Hernaniko Udalaren ordezkaritza bere gain hartuz, eta 2025eko otsailaren 25eko osoko bilkuraren erabakiaren arabera hitzarmena sinatzeko ahalmena duena.

Beste alde batetik, Jose Ignacio Marko Juanikorena, Hernaniko energia berriztagarrien komunitatea kooperatiba sozietatearen lehendakaria, helbide soziala Hernani, Florida 28 kalean. Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiba Erregistroan inskribatuta dago, 1466 zenbakiarekin.

Bi alderdiek, duten ordezkaritzan, behartu eta ados jartzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

AZALDU DUTE:

I. Hernaniko Udalbatzarrak, 2021eko abenduaren 23an egindako osoko bilkura berezian onartu zuen, besteak beste, «Hernaniko Energia Berriztagarrien Komunitatea Kooperatiba Sozietatea» den komunitate energetikoan esku hartzea bazkide kolaboratzaile gisa, (aurrerantzean, eta laburtze aldera Enherkom), eta osoko bilkura berean bere estatutuak onartu zituen.

II. Hernaniko Udalak energia berriztagarrien tokiko komunitate honetako hedapena eta garapena bultzatu eta garatu nahi ditu, era horretara energia-sistemaren demokratizazio handiagoa erdietsiko duelakoan, pertsona ahulenei arreta berezia eskainita, eta herritarrek proiektu honetan parte har dezaten sustatzearren.

Hernaniko Udalak oinarri hartu du Goiener taldeak egindako txosten tekniko-ekonomikoa zehazteko zeintzuk diren udalerriko eraikinen eta instalazioen estalki optimoak ahalik eta eguzki-energia gehien sortzeko bai eta azpiegitura hauetako ondorio ekonomikoak ere (aipatutako azterketa 2025eko urtarrilean egin da).

Egungo araudiak honako hauek hartzen ditu kontsumo hurbileko ekoizpen-instalaziotzat: sarearen bidez sortze-instalazioei lotuta daudenak, estalkietan daudenak eta elektrizitatea sortzea helburu nagusitzat ez duten egungo eta etorkizuneko beste espazio batzuk, betiere 2.000 metrotik beherako distantzia mantentzen badute elkartutako kontsumitzaileekiko. Gaur egun, estalkietan kokatutako sortze-instalazio fotovoltaikoen kasuan, 2.000 metroko gehieneko distantzia egon daiteke hornidura-puntuen kode unibertsalen artean. Laburtzeko asmoz, HPKU gisa itzuliko dugu CUPS akronimo espainiarra euskaraz.

III. Hernaniko Udalak eta Enherkomek erabat beharrezkotzat jotzen dute herri-jabariko emakida-hitzarmen hau izenpetzea bi alderdi horien artean, zeinaren bidez udalak komunitate energetiko horri utziko baitio estalki horien erabilera instalazio fotovoltaikoak instalatze aldera, energia berriztagarrien eta trantsizio energetikoaren proiektuetan herritarren parte-hartzea sustatzeko helburuarekin. Halaber, proiektu honek eragin zuzena du 2030 Agendaren politikei begira, zehazkiago, Garapen Jasangarrirako Helburu hauetan guztiotan (GJH).

3. Osasuna eta ongizatea.

7. Energia eskuragarria eta ingurumena kutsatuko ez duena.

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

9. Industria, berrikuntza eta azpiegiturak.

11. Hernaniko Udala eta komunitatea jasangarriak bilakatzea.

12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.

13. Klimaren aldeko ekinbidea.

17. Garapen Jasangarrirako Helburuak erdiesteko aliantza.

IV. Hernaniko Udalak Euskadiko Toki-Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.1.8 artikuluan ingurumena eta garapen jasangarria babesteko eta kudeatzeko ematen dion eskumenari jarraikiz jardun behar du, baita atmosfera-kutsaduraren aurkako babesari begira ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 5. artikuluan ezarritako helburuak betez. Helburu horien artean daude, besteak beste, **Hernaniko Udalerrian energiaren kudeaketa lokalagoa eta komunitarioagoa suspertzea; berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko zein energia berriztagarriak ekoizteko eta erabiltzeko apustua egiten duten jardueren aldeko politikak eta araudiak bultzatzea; edo beste administrazio batzuekin eta partikularrekin akordioak sustatzea, jasangarritasun eta subiranotasun energetiko handiagoa lortzeko.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 17. artikuluaren 3. zenbakiak honako hau xedatzen du: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publiko bakoitzak, **zuzenean edo energia ekoizten duen erakundeetan parte hartuz, energia berriztagarriak aprobetxatzeko hurbileko instalazioak izan beharko ditu 2030erako, administrazio horren kontsumoaren % 32ari dagokion energia sortzeko adina, aprobetxamendu termikoko nahiz elektrizitatea sortzeko sistemak barne».**

V. Enherkom komunitate energetikoa inolako irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta entitate horrek jarduten du bere estatutuen 2. artikuluan eta sektore elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6.1.f) artikuluan aurreikusitako xedearekin eta helburuekin bat eginik; hau da, haren helburu nagusia da bere bazkideei edo kideei, bai eta jarduten duen tokiko eremuei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak ematea, finantza-irabazien ordez. Bereziki, eta besteak beste:

— Jasangarritasun energetikoa erdiesten laguntzea, udalerriko erakunde, bizilagunek eta saltokiek energia berriztagarriaren ekoizpena eta kontsumoa sustatuz.

— Jasangarritasun energetikoaren kulturan herritarren kontzientzia sustatzea.

— Udalerrian energia-zaurgarritasuneko egoerak saihesten laguntzea.

— 2030eko Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuei buruz kontzientziatzea eta herritarren artean zabaltzea, hiri eta komunitate jasangarriak lortzearekin lotuta (GJH).

VI. Hernaniko Udalak, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 26. artikuluaren eta hurrengoen arabera, energia berriztagarrien proiektuak garatzen lagundu beharko du, tokiko herritarren parte-hartzea sustatu beharko du eta, pixkanaka, energia berriztaezinak ordeztu edo bertan behera utzi beharko ditu.

VII. Hernaniko Udala Enherkomen integratzeak ez du esan nahi instalazio fotovoltaikoak ezarriko diren estalkien jabetza eman edo eskualdatuko direnik; aitzitik, jabari publikoko emakidaren bidez, horien erabilera utziko da eta horiek instalatzea baimenduko da, lehen aipatutako helburu zilegi eta interes orokorreko helburuak lortzeko. Ondorio horietarako, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 26. artikuluak aukera ematen du helburu horiek betetzeko zuzeneko jabari publikoko emakida

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

egiteko.

VIII. Hernaniko Udalak Enherkomi egingo duen diru-zenbatekoa urteroko ekarpena izango da, instalazio fotovoltaikoen lagapenak irauten duen artean. Itundutako diru-kopurua balore estimatua da, ekarpena urtero-urtero errebisatuko baita. Goiener taldeak aztertu du emakida-prozedura baten bitartez proiektu fotovoltaikoak eta energia-zerbitzuak hedatzeko aukera egin duen txostean, bideragarritasun teknikoa zein ekonomikoa arakatuz, eta azterlan hori gehitu da hitzarmen honetako 1. eranskin gisa.

Azaldutakoaren arabera, eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. eta 137.4 artikuluen arabera; otsailaren 8ko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legearen 26.2 artikuluaren arabera, eta, azkenik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.c) artikuluaren arabera, aldeek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmen honen

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da udal-eraikinetako eta udal-espazioetako estalkien jabari publikoko emakidaren baldintzak arautzea, «Hernaniko Energia Berriztagarrien Komunitatea Kooperatiba Sozietatea» kooperatibaren alde, Goiener taldeak idatzitako txosten tekniko-ekonomikoaren arabera (2025eko urtarrilekoa). Txosten hori hitzarmen honen 1. eranskinean jasoko da.

Jabari publikoko emakidaren xedea izango da estalkien eta espazioen erabilera lagatzea azpiegitura fotovoltaikoak instalatu eta ustiatzeko, konpentsazioko soberakinak dituen autokontsumo kolektiboaren modalitatearen bitartez, apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren 4. artikuluaren 3. apartatuak ezarritako arauekin bat.

Jabari publikoko emakidaren xede diren udal-eraikinen estalkiak hiru sortetan banatuko dira:

Lehenengo lotean udal-titulartasuneko eraikinen honako estalki hauek daude: Laubidieta, Meabe, Urumea, Haur Eskola, Elizatxo 1 eta Elizatxo 2. Aurreikusitakoaren arabera, 2025 urtean jarriko dira martxan estalki horien gaineko azpiegitura fotovoltaikoak.

Bigarren lotean barnebilduko dira udal-titulartasuneko egoki diren beste eraikinetako estalkiak, eta honako hauek izango dira: Ereñotzu, Polikiroldegia, HHI, Atsegindegi, eta Biteri. Estalki horien gaineko azpiegitura fotovoltaikoak instalatzea aurreikusita dago 2027 urtetik aurrera. Instalazio horien kokapena eta lagapenaren baldintza zehatzak hitzarmen honen adenda gehigarri batean arautuko dira, baina horrek ez du ekarriko lagapenaren hasierako epea luzatzea.

Era berean, Hernaniko Udalak Enherkom komunitate energetikoari laga ahal izango dizkio udal-hilerrian dauden instalazio fotovoltaikoen erabilera, bai eta Latsunbe eta Udaletxean egingo direnena ere. Lagapen horren baldintza zehatzak hitzarmen honen geroagoko adenda batean arautuko dira.

Bigarrena. Udal-eraikinen sei estalkien jabari publikoko emakida (lehenengo lotea).

Lehenengo loteko sei udal-eraikinen estalkiek 4.446,12 m^2-ko azalera erabilgarria dute. Azaleren planoa eta deskribapena 2. eranskinean zehaztuko dira.

Zenbatetsitako potentzia 408,70 kWp da (kilowatt peak / kilowatt-pikoan neurturik), eta hurbileko energia berdea hornitzea ahalbidetuko du, autokontsumoko erregimenean, Hernaniko 655 etxe eta saltokiri hornidura- eta sorkuntza-puntuetatik 2.000 metrora arteko erradioan kokatuak baldin badaude (biztanleriaren % 5, gutxi gorabehera).

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

Hirugarrena. Hernaniko Udalaren konpromisoak.

Hernaniko Udalak jabari publikoko eta aldi baterako emakida hau kanon baten truke emateko konpromisoa hartu du, horrela Enherkomek aipatutako estalki horiek erabili ahal izango ditu azpiegitura fotovoltaikoak instalazio eta mantentze-lanak egin, ustiatu eta kudeatze aldera.

Jabari publikoko emakida dohainik emango da hogeita bost urterako, eta epe hori zenbatzen hasiko da hitzarmen honetako helburu diren estalki bakoitzaren emate- eta onarpen-akta sinatzen denetik, horrela xedatzen baitute Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. artikulua eta hurrengoek. Hala ere, Enherkom sozietateak sortutako energiaren % 80 eman beharko dio udalari, autokontsumorako.

Hernaniko auzotar diren kontsumitzaileek instalazio fotovoltaikoa instalatzeko proiektuari atxikimendua emateko, 2.000 metrora arteko eremuko etxebizitza eta saltoki guztien publizitatea, parte-hartzea, lehia askea eta aukera-berdintasuna bermatuko dituen prozesu bat erabili beharko da.

Bi aldeek hala adosten badute epea hamar urtez luzatu ahal izango da, legez aurreikusitako 75 urteko gehieneko epea bete arte azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Emakida emango da jabetza-eskubidea errespetatuz, eta beste pertsonen eskubideei ezertan eragotzi gabe.

Hernaniko Udala behartuta dago emakidadunari emandako erabilera eta gozamena mantentzera, eta legez dagozkion kasuetan kalte-ordaina ematera ere.

Hernaniko Udalak Enherkom sustatuko du. Hori ez ezik, energia berriztagarrien tokiko komunitatean parte hartu eta integratu nahi duten bizilagunak, enpresa txiki eta ertainak zein saltoki txikiak erakartzeko kanpaina bat garatuko du, betiere Hernaniko herritarren kooperatiba estatutuetan ezarritako betekizunen arabera.

Laugarrena. Enherkom energia berriztagarrien komunitateko konpromisoak.

Enherkomek jardun behar du estatutuetan aurreikusitako xedea eta helburuei hertsiki lotuta; bereziki, honako hauek bete beharko ditu:

2.000 metrora arteko eremu batean kokatutako etxebizitzak eta merkataritza-establezimenduek energia-komunitatean sartzerakoan publizitatea, parte-hartzea, lehia askea eta aukera-berdintasuna bermatzea.

Komunitate energetikoak lortzen dituen ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak soilik bideratu ahal izango ditu bere helburuak betetzera.

Eusko Jaurlaritzari herri-onurako kooperatiba-sozietatearen deklarazioa eskatzea eta lortzea.

Hernaniko Udalari urtero aurkeztu beharko dio, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko uztailaren 31a baino lehen, Enherkom komunitatearen funtsezko jardueraren eta sozietatea sortzea justifikatu zuten helburuen gaineko betetze-maila deskribatzen duen memoria; bai eta urteko kontuak eta horiei buruzko auditoria-txostena ere, auditore independente batek egina. Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera ordaindu beharreko kanona ere urtero berrikusi beharko dute alderdiek.

Emakida honen xedea eta ezarritako mugak errespetatzea, batez ere, udalaren autokontsumorako energiari buruz ezarritako kanona ordaintzea. Hain zuzen ere, 1.

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

eranskineko 52. orrialdean zehazten den moduan, kanonak bereizi egingo ditu inbertsioetako kanona, baldintza onenetan mantentzeko beharrezkoa den kanona eta instalazio ustiatzeko kanona.

Beharrezko diren administrazio-baimenak eta hirigintzari, zergei eta sektore elektrikoari dagozkion legerian galdatutakoak eskatzea (lizentziak, tasak, bidesariak, instalazioa, sare elektrikorako sarbidea eta konexioa), segurtasun industrialari buruzko legerian eta aplikatu beharreko beste edozein legerian ezarritakoaren arabera.

Instalazio fotovoltaikoak ezartzeko eta abian jartzeko behar diren obrak Enherkomen arrisku eta menturaren printzipiopean izango dira, Hernaniko Udalari obretarako eta lehen erabilerarako hirigintza-lizentzia eskatu ondoren. Instalazioetan edozein aldaketa egin behar izanez gero, aldez aurretik hirigintzako lizentzia eskuratu beharko da.

Emandako jabari publikoa eta instalazio fotovoltaikoak egoera ezin hobean mantentzea, kontserbazio-, segurtasun-, osasungarritasun-, apaindura- eta txukuntasun-egoerari begira.

Utzitako instalazioen eta estalkien erabileratik, mantentze-lanetatik eta kontserbaziotik eratorritako funtzionamendu-gastuak eta beste edozein gastu, tributu, zerga eta tasa ordaintzea, bai eta instalazio fotovoltaikoetan eta estalkietan beharrezkoak diren ohiko edo ezohiko konponketa-obrak ere.

Bere jarduera garatzeko dauden dirulaguntzak eta laguntzak eskatzea.

Komunitateari dagozkion altak ematea estatu-, foru- edo udal-eremuko zerga eta tasetan.

Instalazioa irekitzeari eta ixteari dagozkion administrazio-betebeharrak konplitzea, bai eta energia berriztagarrien komunitateari dagozkion gizarte- eta zerga-alorreko obligazioak ere.

Erantzukizun zibileko aseguru bat sinatzea instalazio guztietarako, 350.000 eurokoa. Hernaniko Udalak paragrafo honek ezartzen duen aseguramendu-betebeharretik salbuetsi dezake komunitatea, baldin eta arrisku horiek estaliko dituen aseguru bat kontratatzen baldin badu edo kontratatuta baldin badauka utzitako azalera duen eraikinerako.

Emakidadunaren kontura izango dira, halaber, espedientearekin zerikusia duten gastu guztiak, bidezkoak diren zergak eta zerbitzu-sariak eta arielak emakida eskritura publikoan jasotzearen ondorioz sortutakoak, hori egitea beharrezkotzat jotzen badu Enherkomek.

Bosgarrena. Estalkietako azaleraren gaineko aprobetxamendu-kanona eguzki-energia sortzeko.

Enherkom energia berriztagarrien komunitateak Hernaniko Udalari laga beharko dio udal-instalazioetan eraikitako instalazio fotovoltaikoetan sortutako eguzki-energiaren % 80, autokontsumorako eta Enherkom emakidadunak gainerako % 20a libreki erabili ahal izango du konpentsazioari atxikitako soberakinak dituen autokontsumo kolektiborako. Hala ere, sortutako energiaren banaketa hori ez da estatikoa izango, baizik eta dinamikoa. Hori ez ezik, udal-instalazioen autokontsumo-beharrak bermatu ondoren, saiatuko da sortutako gainerako energia Enherkom Energia Berriztagarrien Komunitateko kideek kontsumitu dezaten, ekoizpen-puntutik ahalik eta hurbilen.

Horren ordainetan, Hernaniko Udalak konpromisoa hartzen du Enherkom energia berriztagarrien komunitateari 3.239.636 euro ordaintzeko 2025etik emakida amaitu arte (amaiera 2049rako aurreikusita dago), «eguzki-energia aprobetxatzeko kanon» gisa, Goiener taldeak idatzitako txosten tekniko-ekonomikoan ezarritako moduan (2025eko urtarrileko txostena). Aprobetxamendu-kanon horren barruan jaso beharko dira bai «inbertsio-kanona», bai «mantentze-kanona», bai eta «ustiapen-kanona» ere, urtez urte banatuta.

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

Aldeen arteko banaketa-koefizienteen balioa aldatu ahal izango da, gutxienez lau hilabeteko aldizkakotasunarekin, hau da, urtean hiru aldiz, emakidadunari behar adinako aurrerapenarekin jakinarazita. Jarraipeneko batzorde mistoak ezarriko du zenbat denbora lehenago jakinarazi behar den.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea herri-jabariko emakida suntsiarazteko arrazoi izango da.

Seigarrena. Herri-jabariko emakidaren baldintzak.

Gastuak.

Era berean, egin behar diren lanak eta obrak estalkiak eta instalazio fotovoltaikoak konpontzeko, berriz jartzeko edo mantentze-lanetarako emakidadunaren kontura izango dira, eta udalaren berariazko baimena izan beharko dute aldez aurretik.

Emakidadunak bere gain hartuko du estalkien okupazioaren ondoriozko erantzukizuna, eta bere kontura izango dira jabari publikoko emakidaren xede diren ondasunen erabilerak eta kudeaketak eragindako edozein kalte, entrega-akta sinatzen den egunetik beste pertsona batzuei sorturiko kalte edo galerak barne.

Hernaniko Udala ez du inolako ardurarik izango emakidadunak bere hornitzaileei ordaintzen ez badie, ez eta instalazioetan gertatu daitezkeen narriadurez edo lapurretez ere.

Emakidaren lagapena edo eskualdaketa.

Emakida hau soilik utzi edo eskualdatu ahal izango zaie negozio juridiko baten bitartez aldez aurretik udalaren idatzizko adostasuna eta baimena duten pertsonei, eta hasierako epea betetzeko falta den denboragatik.

Emakida berreskuratzea.

Hernaniko Udalak beretzat gordetzen du emakida hau berreskuratzeko ahalmena, hau da, mugaeguna baino lehen ondoriorik gabe uzteko eskubidea, baldin eta interes publikoko gorabeherek hala justifikatzen badute, emakidadunari sortzen zaizkion kalteen ordaina emanez, edo bestela, kalte-ordainik gabe, hori bidegabea gertatzen denean.

Emakida itzultzea.

Emakida-epea amaitu baino sei hilabete lehenago, Hernaniko Udalak teknikari egokienei emango die enkargua estalkien eta instalazioen egoera ikuskatu ditzaten, eta, azterketa teknikoaren emaitzak oinarri harturik, emakidadunari agindu ahal izango dio bi eginbide hauetako bat:

1) Eraikinetako estalkiak zein instalazio fotovoltaikoak aurreikusitako baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat jotzen diren konponketa-obrak eta eraikuntza-lanak egitea.

2) Estalkiak jatorrizko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren eraikuntza-lan guztiak egitea, inolako instalazio fotovoltaikorik gabe.

Herri-jabariko emakidak ez du inolako bermerik.

Emakida-emaileak ikuskatzea.

Hernaniko Udalak emakidaren objektu diren ondasunei begirako ikuskatzeak burutzeko ahalmena izango du, instalazioen funtzionamendu egokia ezertan oztopatu gabe, estalkiak hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera erabiltzen direla bermatze aldera. Horrek ez du

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

kentzen udalerriak ingurumenean eta hirigintzan esku hartzeko dituen ahalmenak.

Lehentasunez eskuratzea.

Udal-administrazioak lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango du estalkiaren eta instalazioen gaineko lurgain-eskubidea besterentzen baldin bada, horrela xedatzen baitu Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 103. artikuluak.

Aldaketa.

Enherkom erakunde emakidadunak, emakidan zehar handitu ahal izango du instalatutako potentzia udalarekin ados jarriz gero, betiere emakidaren eraginpeko azaleraren barruan. Hedapenek ez dute eskubiderik emango emakidaren aldia luzatzeko.

Komunitateak kreditu merkatura jotzen badu instalazioak finantzatzeko, Hernaniko Udalak kanona pignoratzeko baimena ematen du, eta kanonaren banku helbideratzea ezarri ahal izango du erakunde finantzatzailearen kontuan.

Zazpigarrena. Emakida azkentzeko arrazoiak.

Herri-jabariaren gaineko emakida honako arrazoi hauengatik azkenduko da:

a) Enherkomen nortasun juridikoa azkentzea, edo emakidaduna gauza ez izatea egitekoak burutzeko.

b) Aldez aurreko baimenik ez izatea eskualdaketa edo lagapen kasuetan.

c) Emakida iraungitzea epea amaitzeagatik.

d) Emakida-emaileak berreskuratzea emakida.

e) Emakida-emailea eta emakidaduna ados jartzea.

f) Emakidaren titularrak dituen betebeharrak era larrian ez konplitzea, emakida eman zuen organoak horrela adierazita. Bereziki, honako inguruabar hauek:

- Ikuskatzaileen eta agintarien errekerimendu zilegiei jaramonik ez egitea.
- Jarduera egikaritzea baldintza oso eskasetan.
- Ez betetzea emakidan adierazitako instalazio- eta zuzkidura-baldintza teknikoak.
- Baimendutakoa baino ehuneko 25 gehiago okupatzea emakida-emailearen baimenik gabe.
- Instalazioaren funtzionamenduak bizilagunei edo oinezkoei eragozpen larriak egitea, baldintzak behin eta berriz eta modu larrian ez betetzeagatik.
- Instalazioa hitzarmenean berariaz adierazitakoez bestelako erabilera baterako erabiltzea, udalaren aldez aurreko baimenik gabe, hala badagokio.
- Okupatutako jabari publikoaren kontserbazioari behar bezalako arduraz ez erantzutea.
- Estalkiak edo instalazioak subrogatzea, errentan ematea, azpierrentan ematea edo lagatzea, osorik edo zati batean, laugarren klausulako bigarren atalean ezarritakoa errespetatu gabe.

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

g) Ondasuna desagertzea edo haren aprobetxamendua bukatzea.

h) Ondasunaren desafektazioa; kasu horretan, likidatu egingo da, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 102. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

i) Emakidaren indarraldirako epea amaitzea.

j) Emakidaren bidez utzi diren instalazioak bateraezinak suertatzea hitzarmen hau sinatu eta gero onartutako beste eraikuntza-obra batzuekin edo hirigintza-plan berriekin.

k) Hitzarmena larriki ez betetzea, alderdietako batek hori egiaztatzen badu.

Hitzarmen hau azkenduz gero, ondore juridikoak izango dira azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoak.

Zortzigarrena. Jarraipen-batzordea.

Hitzarmen honetako alderdi guztien segimendua egin ahal izateko bitariko jarraipen-batzorde bat eratuko da, emakidaren garapenari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitu eta hitzarmenaren jarraipena egiteko.

Batzorde hori Hernaniko Udaleko bi ordezkarik eta Enherkomeko beste bik osatuko dute. Jarraipen-batzorde horretan, parte hartu ahal izango dute bai ordezkari politikoek, bai landuko diren gaietan aditu diren teknikariek. Ingurumen-arloko titularra izango da batzordeburua, eta kalitateko botoa izango du. Gutxienez, batzorde horrek bilera bat egingo du otsailean, urteko kanona zehazteko eta aurreko ekitaldiko kanonaren likidazioa gainbegiratzeko, baita hitzarmenaren sinatzaileek beharrezkotzat jotzen duten guztietan ere.

Jarraipen-batzordeko eginkizunak hauek izango dira:

— Emakidaren aplikazioan sor daitezkeen interpretaziorako eta betetzeko arazoak erabakitzea.

— Emakidaren hitzarmeneko betearazpenaren jarraipena eta kontrola egitea.

— Hitzarmena eraginkortasunez kudeatu eta garatzeko beharrezkoak diren gainerako eginkizun guztiak betetzea.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmenaren edukia aldatzeko, sinatzaileen aho bateko erabakia beharko da, eta dagokion adendaren bidez formalizatu beharko da.

Hamargarrena. Aplikatu beharreko legeria.

Hitzarmen honek ondareko izaera juridiko-pribatua dauka.

Jabari publikoko emakida hitzarmen honek arautuko du batez ere, eta, bertan aurreikusten ez den guztian, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak; Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak.

Hitzarmena Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikaziotik kanpo dago, lege-testu horrek berak 9.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

Hamaikagarrena. Auziak.

Hitzarmenaren ondorioei, interpretazioari, aldaketari edo suntsiarazpenari buruz alderdien artean sortzen diren auziak edo gatazkak, Bitariko Jarraipen-Batzordean adostasunaren bitartez ezin badira erabaki, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegi eskudunen menpe jarriko dira.

Hamabigarrena. Datu pertsonalak babesteko araubidea eta konfidentzialtasuna.

Hitzarmen hau betearazten den bitartean alderdiek datu pertsonalak tratatzen badituzte, zorrotz bete beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena, bai eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere; eta, aplikatzekoa den guztian, maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapenak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Hernaniko Udalak kideak hartzeko egiten dituen kanpainetan, udala izango da tratamenduaren arduraduna, eta Enherkom izango da tratamenduaren eragilea.

Aldeek konpromisoa hartzen dute beste aldeak emandako datu eta informazio guztien konfidentzialtasuna gordetzeko, baldin eta hitzarmen honen xedea betetzeari buruzkoak badira, eta isilpean gorde beharko dute informazio hori. Halaber, ez diote inola ere emango, ez osorik ez partzialki, hitzarmen honen parte ez den ezein pertsona fisiko edo juridikori horrelako daturik, legez aurreikusitako kasuetan eta moduan izan ezik.

Hamahirugarrena. Jarduera publikoaren gardentasuna.

Hernaniko Udalak aldian-aldian eta eguneratuta argitaratuko du hitzarmen honi buruzko informazioa, baldin eta informazio hori jakitea garrantzitsua bada jarduera publikoaren funtzionamenduarekin eta kontrolarekin lotutako jardueraren gardentasuna bermatzeko. Hain zuzen ere, hori galdatzen da gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5.1 eta 8.1.b) artikuluetan, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.f) artikuluan ere.

Eta adostasuna adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute, dokumentu honen sinaduran agertzen den datan, alderdiek bitarteko elektronikoen bidez formalizatu baitute emakidaren hitzarmena.

Hamalaugarrena Kanonaren urteroko berrikusketa.

Aztergai den emakidaren izaerak, hiru kanon ezberdin barnebiltzen dituenak, denboran zehar aldakortasuna eta ziurgabetasuna duten elementuak ditu, eta horiek gomendagarri egiten dute kanonen balioetara egokitzeko mekanismoak ezartzea. Horregatik, «Kanon bakoitzaren hasiera-datak eta berrikuspen-irizpideak» izeneko 1. eranskineko 5. apartatuan garatutako irizpideak sartzen dira, honela laburbilduta:

Instalazioak.
Maileguaren baldintzak.
Dirulaguntzak eta beste diru-sarrera batzuk.

Mantentze-lanak.
Mantentze-gastuak 3 urtera.

Ustiapena.
Aholkularitza juridikoa 3 urtera.

ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7

Autokontsumorako plataforma	3 urtera.
Koefizienteen kudeaketa	urterokoa.
Arreta eta zerbitzua	urterokoa.
Energia-aholkularitza	urterokoa.
Diseinua, kudeaketa eta jarraipena	urterokoa.

Hala ere, jarraipen-batzordeak irizpide horiek berrikusteko aldia egokitzea erabaki ahal izango du.

1. eranskina. Hernaniko Udalak energia-komunitate bati emakida-prozesu baten bidez proiektu fotovoltaikoak eta energia-zerbitzuak hedatzearen bideragarritasunari buruzko txostena (erreferentzia: OTS250102).

2. eranskina. Utzitako estalkiak: 0. lotea (jadanik instalatuta edo aurreikusita daudenak), 1. lotea, eta 2. lotea (2027an egingo dena). Aurreko eranskinaren 54. orrialdea, non aurreikusitako instalazio guztiak jasotzen diren.

JOSE IGNACIO MARKO JUANIKORENA - 15954717P
Digitalki sinatua Enherkom Energia Komunitatea koop.
2025.04.14 13:34:17 +02'00'

EKS | CSV: **ESKU9873e5dd-19f8-4a68-872c-f3ed05410db7**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010